

Adieren kontrako botoekin, Madres Mercedarias-eko langileen mozioa baztertu du Orozkoko Udalak

Adieren kontrako botoen ondorioz eta EH Bildu eta EAJren aldeko botoekin, Ibarako Madres Mercedarias-eko langileek aurkeztutako mozioa baztertu du Orozkoko udalbatzak martxoaren 8an burututako osoko bilkuran.

Aniztasun funtzionala duten pertsonentzako Madres Mercedarias egoitza-zentroan Fundación Aliados-ek murrizketa larriak ezarri ditu lan-baldintzetan, eta langileekin zuen ituna aplikatzeari utzi dio. Murrizketa horien ondorioz, lanaldia handitu, jaiegun gehiagotan lan egin eta KPlaren igoera itundua ezabatu da.

Madres Mercedarias eta Integrazioaren aldeko Fundación Aliados-ek negoziatzeko borondaterik ez dutenez, eta Bizkaiko Foru Aldundiak, zerbitzu publiko honen titularrak, ezer egin ez duenez, langileek 5 eguneko greba egin zuten, eta atzo, martxoaren 8an, 6 eguneko grebari ekin zioten, 9an, 10ean, 22an, 23an eta 24an luzatuko dena. Martxoaren 24an manifestazioa egingo dute 18:00etan Orozkoko Zubiaur plazatik abiatuta, beraien egoeraren berri emateko.

Adieren kontrako botoekin, Orozkoko Udalak baztertu egin du Ibarako Madres Mercedarias egoitza-zentroko langileei babesa adieraztea proposatzen zuen mozioa. Eta bestalde, Udalak bitartekari-lana eskaini eta Aliatuen Fundazioko Zuzendaritzaren eta langileen ordezkarien arteko bilera deitzeko, Bizkaiko Aldundiko arduradunen eta langileen ordezkarien arteko bilera deitzeko, martxoaren 24an Orozkoko Zubiaur plazatik 18:00etan abiatuko den manifestazioarekin bat egiteko eta azken honekin bando bat ateratzeko konpromisoak hartzeari uko egin dio Orozkoko udalbatzak.

Adiek, langileen mozioari ezezkoa emateaz gain, azken momentuan eta inorekin adostu gabe, Madres Mercedarias-eko langileen mozioa kopiatu, moldatu eta bere izenean beste bat aurkeztu du. EH Bilduk kritikatu duenez, Udal Gobernuarentzat garrantzutsuagoa da bere interesen araberrako mozioa onartzea langileak entzutea eta beraien aldarrikapenak kontuan hartzea baino.

Orozkon, 2022ko martxoaren 9an

EH Bildu Orozko Udal Talde Politikoa

orozko@ehbildu.eus | www.orozko.ehbildu.eus